


5.
gida

Ordezkariek Parte-hartze Batzordean





Logotipo honek identifikatzen ditu irakurketa zailtasunak dituzten pertsonentzako IFLAren (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europeen irizpideak jarraitzen dituzten materialak.

Araba, 2023

“Gaixotasun mentala duten pertsonentzako Arabako Lurralde Historikoko eguneko egoitza arretako zentroen eta zentro okupazionalen estatutua”ren “Xedapen orokorrak”eko I. Tituluaren irakurketa errazeko egokitzapena, Irakurketa Errazari buruzko UNE 153101:2018 EX arauaren arabera.

Edizioa

Arabako Foru Aldundia

IE egokitzapena

Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza

Diseinua eta maketazioa

Mercedes Corretge Arrastia

Ilustraciones de portada: © M. Corretge

Irudiak

Noun Project: Free Icons-eko ikonoak

Balioztatzea

EAEko liburutegi publikoetako

irakurketa errazeko taldeen erabiltzaileak.

LG:xxxxx

Aurkibidea

Zertarako balio du estatutu honek? 4

Hauteskundeak deitzea 5

Nor aurkez daiteke
hauteskundeetan? 7

Bozketa 8

Botoen zenbaketa 9

Parte-hartze batzordearen osaketa 11



Zertarako balio du estatutu honek?

Estatutua legezko dokumentua da eta elkarte, zentro edo edozein erakunderen funtzionamendu arauak jasotzen ditu.

Estatutu honetan agertzen dira Arabako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuetako gaixotasun mentala duten pertsonentzako Oinarrizko Arretarako Zentroetako erabiltzaileek eta profesionalak bete behar dituzten arauak.

Zehazki, azaltzen dira gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroen, zentro okupazionalen eta egoitzen eskubideak, betebeharrak, antolamendu eta funtzionamendu arauak.


Arabako Foru Aldundiak **5 gida** egin ditu estatutu hau azaltzeko.

Gidak honako hauek dira:

- 1. gida.** Gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentro motak
- 2. gida.** Erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak
- 3. gida.** Gaixotasun mentala duten pertsonen inklusioa zentroetan
- 4. gida.** Zentroen antolamendua eta funtzionamendua
- 5. gida.** Ordezkariek hautatzea

Hau **5. gida** da.

Parte-hartze Batzordean parte hartuko duten pertsonak hautatzeko jarraitzen den prozesua azaltzen du.



Hauteskundeak deitzea

14 erabiltzaile baino gehiago dituzten zentro guztiek, prozesu bat jarraitzen dute Parte-hartze Batzordean ordezkaturiko dituzten pertsonak hautatzeko.

Prozesu hori hauteskundeak deitzean datza. Erabiltzaile guztiek bozka dezakete hauteskundeetan ordezkariak hautatzeko.

Batzar orokorrean erabakitzen da nor izango diren hauteskunde-mahaietan.

Hauteskunde-mahaia

Hauteskundeak daudenean sortzen den toki bat da. Pertsona talde batek osatzen du. Pertsona horiek arduratzen dira botoak jaso, zenbatu eta prozesu osoa legez egiten dela ziurtatzeaz.


Zentro bakoitzeko hauteskunde-mahaia bi erabiltzaile eta profesional batek osatzen dute. Profesionala hauteskunde-mahaiko mahaiburua edo idazkaria izango da.

■ Zein dira hauteskunde-mahaiaren funtzioak?

- 1.** Hauteskunde-prozesu osoan zehar arauak betetzen direla ziurtatzea.
- 2.** Bozkatuak izateko aurkezten diren pertsonen **hautagaitzak** onartzea, eta baldintzak betetzen ez dituztenen hautagaitzak baztertzea.
- 3.** Akta izena duen dokumentua idaztea. Dokumentu honetan jasotzen dira hauteskunde-prozesuan jarraitzen diren urrats guztiak eta hautatutako pertsonen izenak.
- 4.** Botoa eman dezaketen pertsonen zerrenda sortzea eta argitaratzea.

Hautagaitza.

Kargu bat edo sari bat lortzeko aurkezten den pertsona baten proposamena.






Nor aurkez daiteke hauteskundeetan?

Hautagai gisa aurkez daiteke zentroko parte diren erabiltzaile guztiak. Beren kabuz edo erabakiak hartzeko ordezkatzan dituen pertsonaren bidez egin dezakete.

Hautagai gisa aurkezten direnek hauteskunde-mahaia osatu eta hurrengo 7 egunetan eskaera aurkeztu behar dute hauteskunde-mahaian. Eskaera idatziz aurkezten da.

Ondoren, hauteskunde-mahaian dauden pertsonak 24 ordu dituzte eskaerak onartzeko. Hautagaien zerrenda argitaratzen da iragarki-taulan jartzen den dokumentu batean.

Hauteskundeetan aurkezten diren erabiltzaileek ezin dute hauteskunde-mahaian parte hartu.



Bozketa

Bozketa zentroan egiten da, hautagaien zerrenda argitaratu eta hurrengo 20 egunetan.

Bozketa prozesua honela egiten da:

- Pertsonak botoa ematera doaz bakarrik edo erabakiak hartzeko sostengatzen duen pertsonak lagunduta.
- Hauteskunde-mahaian daudenek botoa ematera doan pertsonari eskatzen diote NANA edo identifikatzeko balio duen beste dokumenturen bat.
- Bozketa paperetan hautagaien izena idatzita dago eta ondoan lauki zuria dago. Boto ematera doan pertsonak gurutze bat jarriko du lauki zurian, botoa eman nahi dion pertsonen izenaren ondoan.

Zentro bakoitzean gutxienez 3 hautagai aukera daitezke. Zentroa zenbat eta handiago izan are eta pertsona gehiago hauta daitezke.

Zehazki, zentroak dituen 10 plaza bakoitzeko pertsona bat gehiago aukera daiteke. Hau da, 14 eta 24 plaza bitarteko zentro batean 3 pertsona hauta daitezke. 24 plaza dituen zentro batean 4 pertsona hauta daitezke. 34 plaza dituen zentro batean 5 pertsona hauta daitezke.

- Hauteskunde-mahaiko idazkariak zerrenda batean idatziko ditu botoa ematen duten pertsonen izena.

Horrela, egiazta daiteke botoa nork eman duen eta nork ez.



Botoen zenbaketa

Botoen zenbaketa publikoa da. Honek esan nahi du, nahi duten pertsonak ikus dezaketela.

Jarraitzen den prozesua honako hau da:


- Hauteskunde-mahaiko mahaiburuak boto-ontzitik banaka aterako ditu botoak, hautatutako pertsonen izena irakurriko du eta gainontzekoei papera erakutsiko die.
- Hauteskunde-mahaiko beste pertsona batek idatziko du hautagai bakoitzak lortzen duen boto kopurua.
- Botoen zenbaketa bukatu ondoren, hauteskunde-mahaiko idazkariak akta izena duen dokumentua aurkeztuko du. Dokumentu horretan hautatutako pertsonen izenak daude. Hauteskunde-mahaia osatzen duten pertsona guztiek akta sinatuko dute.

- Hauteskunde-mahaiko mahaiburuak irakurriko du bozketaren emaitza eta esango du nor diren hautatutako pertsonak.
- Emaitzak iragarki-taulan argitaratuko dira. Baita Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera bidaliko dira ere.

■ Zer gertatuko da 2 pertsonak boto kopuru bera lortzen badute?

Kasu horretan, zentroan denbora gehien daraman pertsona aukeratzen da.

Hala ere, bi pertsonetako batek bere kabuz jardun badezake eta besteak erabakiak hartzeko sostengua behar badu, pertsona autonomoena aukeratuko da, nahiz eta zentroan denbora gutxien daraman.



Parte-hartze batzordearen osaketa

Parte-hartze Batzordea hauteskondeak egin eta 5 egunera eratzen da.

Hautatutako pertsonen artean bat lehendakari izendatzen da, Parte-hartze Batzordeko kideen artean isilpeko bozketa egin ondoren. Ondoren, zentroko profesional-taldeko pertsona bat idazkari izendatzen da.

Hautatutako kargu horiekin Parte-hartze Batzordea osatuta geratzen da.

Denbora igaro ondoren, Parte-hartze Batzordean plaza libre bat geratzen denean, hura osatzen duten pertsonak beste pertsona bati eska diezaiokete hauteskondeak deitu arte plaza hori bete dezala.